

Ama, gutun hau zuri idazten dizut, gaur ezagutu ez nauzun arren, badakidalako maite nauzula, nik zu maite zaitudan gisan.

Gaur, agian, ez duzu jakingo nor zaren, zer nahi duzun, zer egiten duzun hemen, nola jantzi, nola hitz egin... Baina ni hemen nago hori gogora ekartzeko ahal dudan heinean, edo behintzat horren bakarrik sentitu ez zaitezen amesgaizto hau bizi duzun bitartean.

Zu beti hor egon zaren moduan, ni ere hemen naukazu, baina ez zor dizudalako, baizik eta merezi duzulako eta miresten zaitudalako. Gutun hau idazten dizut irakur dezazun egunero, eta ahaztu ez dezazun bakarrik ez zaudela, hemen naukazula.

Mesanotxean daukazu argazkian besarkatuta ikusten diren bi pertsona horiek gu geu gara, zu eta ni, ni eta zu. Badakit ikusten duzunak islatzen duena ahaztu duzun bizitza baten irudi bat besterik ez dela. Badakit, hutsik sentitzen zarela sarri, zure izana galtzen joango bazina bezala apurka-apurka, ahaztuz iragana, ahantziz zein naizen eta zeintzuk diren bisitan etortzen ez zaizkizunak, txoriak etortzen ez diren toki honetara, ospitalera, preseski.

Sarri, ez dakizu galderarik erantzuten, ezta zeure burua ezagutzen ere; ez ispiluan ezta argazkietan ere. Badakit noraezean aurkitzen zarela, ez dakizula nora zoazen, nondik zatozen, norantz joan... eta horrek guztiak beldurtzen zaituela ere badakit; izan ere, urruntzen zoazen heinean, laguntza lau haizetara eskatuta ere iristen ez dela nabaritzen duzunean, ikara besterik ez baituzu sentitzen. Eta gogorra da hori, bai zuretzat eta baita niretzat ere, ikusezina den etsai baten aurka irabazterik ez dagoen zenbait eta zenbait guduri aurre egin beharra, hain zuzen. Baina hemen naukazu ama, ez zaude bakarrik borroka honetan.

Egunero hiltzen gara, eta egunero jaio. Beraz, lasai egon, egunero elkar ezagutzea polita izan baitaiteke. Ez naiz inoiz nekatuko kontatzeaz nola lagundu nauzun erori naizen bakoitzean. Ezta ere, zenbat barre egin genuen kale-argi horren aurka tupust egin nuenean zuri begira nindoalako zelako eder zeuden esanez, erreparatu gabe aurrean neukan oro. Izugarritzko mina nabaritu nuen baina hainbeste grazia egin zigun hark, non, mina ahaztu eta barre besterik ez baikenuen egin negar malko horien artean, minez eta pozez nahastuak; gehiegi pentsatu gabe, bihotzak esandakoa jarraituz.

Eta hori da gogora ekarri nahi dizudana, hain zuzen. Pentsatu ezin baduzu, ez da ezer gertatzen, gogoratu ezin baduzu edo banauzu, lasai, bihotza edukiko duzu beti hor, urrezkoa gainera zeure kasuan, nora joan esango dizuna. Beti ez duzu asmatuko, baina ba al dago bizitza honetan guztia ondo egiten duenik? Ezetz esango nuke. Huts egiteak baditu bere alde onak ere, irakasle ezin hobe da ikusteko zer edo nor berriz ez; noiz edo nola berriro ez...

Gogoratzen naiz, non, jubilatzea besterik buruan ez zeneukanean. Esaten nizun behin eta berriz, oraina disfrutatzeko, zetorrena zetorrela dena ongi joango litzatekeela. Ez jartzeko eperik baimentzen zintuena bidaiatzera edo lagunekin scape-room horietako bat egitera. Aipatzen nizun, ez zeukala batere zentzurik jublatu arte esklabu gisa bizitzeak, bizitza idiliko baten zain, nola ez, jubilatzean helduko litzatekeena. Eta orain inoiz baino argiago daukat ez nengoela oker. Izan ere, jublatu baina bi hilabete lehenago auto-istripua pairatu zenuen, eta harrezkero, horrek

zuga sortu duen korapiloa askatu nahian zabilta, baina gero eta zailagoa da hori zuretzat, ez baitzara gogoratzen korapilo hori hor dagoenik gehienetan. Amnesia omen da horren errudun.

Capadoziara joan gabe gelditu zinen, lagunekin parapentean ibili barik, irakurtzeko zenezkan hamaika bat liburu usandu ere egin gabe... Eta dena ez zinela konturatu orainak duen garrantziaz.

Iragana barkatzen eta ulertzen bizitzea edo etorkizunagatik kezkatuta bizitzea ez da ideia ona; orainaz ahaztuta; zein zaren, non zauden, nola zauden, zer nahi duzun... kontuan izan gabe.

Beraz, proposatzen dizut, hemendik aurrera oraina izango dela gure lehentasuna. Egunero bizitza bat hasieratik eraiki behar badugu, hor izango nauzu aldamenean, piezak falta zaizkion puzzle horri forma pixka bat emateko, baina batez ere, zure ahoan faltan botatzen dudak irribarre polit hori ikusteko. Ez naiz inoiz nekatuko eta hori ikusteaz.

Ama, bizitzen ikasi beharra dago gizarte honetan, uste baitut bizitzearen inguruan ezer gutxi dakigula. Eta ausartzen naiz esatera zu ados egongo zinatekeela esaten ari naizen honekin. Beraz, zuri gustatuko litzaizukeen bezala, egunero ahazten dut iraganean hainbeste min egin zigun hura, eta etorkizunak eragiten didan erreparoa. Orain, hemen nago, eta hemen egonda zoriontsu naiz, nahi dudana egiten dudalako nahi dudanean, gehiegi pentsatu gabe, bihotzari kasu eginda.

Egunero zoriontsu egin zaitzaketa, eta horrek zoriontsu egiten nau ni. Ez da erraza baina polita da oso, zure irribarre baten edo batzuen truke bada.

Hemen izango nauzu betiko, ez ahaztu, ez zaudela bakarrik. Eta inoiz egongo ez zarela.

Horregatik idazten dizut hau, gogoan izan dezazun aipatutako guztia, baina batez ere, eredu ikaragarria zarelako. Agian, desio duten bizitzaren zain dauden horiei erakutsi diezu itzarotea denbora galtze hutsa dela, denbora dela daukaguna eta erabili beharra dagoela daukagun altxor hori. Ez dezagun gehiago atzeratu hainbeste desiratzen duguna, bihotza beteta edukitzeko aukera paregabe hori.

Esan bezala, hainbeste desiratu duzun bizitza hori eskaintzen saiatuko naiz egunero, mila modu baitaude gauzak egiteko, dena ez da izango pentsatzen genuen modukoa, baina zaia gaitzen segunduero disfrutatzen...

“Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude”.